

**PENTSAMENDUA.** EHUK ematen du argitara, eta iaz kaleratu zituzten lehen bi zenbakiak

# Gogoaren inguruko euskarazko zientzia aldizkaria aurkeztu dute

EHUko Logika, Kognizio, Hizkuntza eta Informaziorako Institututuak sortu du 'Gogoa'

Juan Luis Zabala | DONOSTIA

*Gogoa* aldizkariaren aurreneko bi zenbakien aurkezpena egin zen, atzo eguerdian, Euskal Herriko Unibertsitateak Donostian duen campusean. EHUko Logika, Kognizio, Hizkuntza eta Informaziorako Institutua (IL-CLI) da aldizkariaren egilea, Kepa Korta irakaslea zuzendaria, eta EHU argitaratzailea. *Euskal Herriko Unibertsitateko Hizkuntza, Ezagutza, Komunikazio eta Ekintzari buruzko Aldizkaria* du azpititulu *Gogoa*-k, eta atzo aurkeztutako bi zenbakiak iazko data dute: 2001eko apirilkoa lehenak, eta 2001eko urrikoa bigarrenak. Hirugarrena uda baino lehen izango da plazan, ezeren okerrik ez dela.

«Unibertsitate arloko diziplina arteko ikerketara bideratutako aldizkaria da *Gogoa*», definitu du Kepa Korta zuzendariak. «Euskara hutsez egina da», gehitu du, «eta gogoari buruzkoa; gogoa du ardatz, alderdi eta diziplina askotatik begiratu bada ere: filosofia, psikologia, hizkuntzalaritza, informatika eta adimen artifiziala, matematika, logika...».

«Alor horietan lanean ari diren ikerlari euskaldunak» dira, Kortak dioenez, idazlanen egileak, «EHUn lan egiten dutenak zein beste unibertsitate batzuetan dabilzanak».

Hala ere, aldizkariaren lehen atala, *Itzulpena*, kanpotik hartutako oinarritzko testuei eskainia da. Willard Van Orman Quine-



GARI GARAIALDE  
Kepa Korta, *Gogoa* aldizkariko zuzendaria.

ren *Enpirismoaren bi Dogma* plazaratu du *Gogoa*-k 2001eko apirilko zenbakian, eta Alfred Tarskiren *Egiaren kontzepzio semantikoa eta semantikaren oinarriak* urte bereko urrikoan.

Ondorengo atalak, *Zabal-zehatz begiratzuz* izenekoak, ikerketa alor bati edo gai jakin bati buruzko «ikuspegi panorami-

koa» eskaintzea du xede. «Adituek gustura irakurtzeko modukoak izan behar dute atal horretako testuek, eta aditu ez diren interes pizteko modukoak». Apirilko zenbakian Luis A. Perez Mirandak *Hautatzeari buruzko arrazoibidea eta bere mugak* izan zituen aztergai, eta urrikoan *Begiratu*

## KEPA KORTA

'Gogoa' aldizkariko zuzendaria

«Unibertsitate arloko diziplina arteko ikerketara bideratutako euskarazko aldizkaria da 'Gogoa'»

*zabala gaur egungo pragmatikari idatzi du Kepa Kortak.*

**Bi adituren oniritzia behar dute artikuluek**

Ondoren artikulua berriei zabalduko atala dago, *Artikuluak* izen generikoa duena. Aldizkari zientifikoetan ohikoa den galbahea iragan behar dute atal horretako artikuluek argia ikusi baino lehen: bi adituk irakurtzen dute artikulua, eta biek baiezkota ematen badiote ez dago arazorik; biek ezezkoa emanez gero, artikulua ez da *Gogoa*-n plazaratuko; baiezkota bakarrik ematen badiot, beste aditu bati emango zaio artikulua, eta hark erabakiko du balekoa den edo ez.

Beste hiru atal ere baditu aldizkariak: *Liburuen kritikak*, *Aurkezpen laburrak* (liburu berriei buruzko erreseinak) eta *Berriak* albistegia.

Jaunba Berasategi marrazkigile eta zinemagile ezaguna da *Gogoa* aldizkariaren azalaren diseinatzailea. Harengan zein beste laguntzaile askorengan aurkitu duen jarrera laguntzailea eskertu du Kepa Kortak.

## LITERATURA

**240.000 bisitari espero dituzte, gaurtik aurrera, Liburuaren Parisko Azokan**


Agentziak | PARIS

Gaurtik hilaren 27ra bitartean, 1.250 argitaldariren lanak bilduko ditu, 50.000 metro koadrotan, Liburuaren Parisko 22. Azokak. 240.000 bisitari espero dituzte antolatzaileek, eta 1.600dik gora izango dira azokako *stand*-etan egongo diren idazleak.

Italia da aurtengo ekitaldiko gonbidatu nagusia, eta herri horretako 60 egile izango dira azokan. Marcello Fois, Erri de Luca, Claudio Magris eta Mario Rigoni dira Italiako ordezkariak ofiziala osatuko duten idazleetakoz.

Alabaina, hainbat idazle ezagun —Umberto Eco, Andrea Camilleri eta Vincenzo Consolo, besteak beste—, ordezkaritza ofizialekin at helduko dira Parisera, Silvio Berlusconi Italiako lehen ministroaren politikaren aurkako protesta gisa.

Silvio Berlusconi ez du parte hartuko gaurko inaugurazio ekitaldian, eta ezta Jacques Chirac Frantziako lehen ministroak ere, Monterreyn (Mexiko) izango baita, NBERen hitzaldi batean parte hartuz. Catherine Tasca Frantziako Kultura ministroa izango da ekitaldiko pertsonaia nagusia. Tascak adierazi zuen ez zuela Berlusconi gaurko inaugurazio ekitaldian izan zedin nahi.



**Bihar**

**Mira** mundu

**Egunkaria**

**Makalu'2002:**  
**Bi euskal espedizio izango dira**  
**aurten 'Beltz Handian', bat Mendebaldeko Pilarean**  
**Segurtasun neurri batzuk Aste Santuari begira**  
**Mendiko eskiko Euskal Herriko Lehen Txapelketa**  
**Goikogane: Bizkaia eta Araba arteko mugan**  
**'Sokan': Mike Horn, zirkulu polar artikoari jarraiki**  
**...zure independentzia**

